

BALIOZKO PROPOSAMENA

Enpresa batentzako ezinbestekoa da eskaintzen duen produktua ondo adieraztea. Hortaz, atal honetan gure enpresak eskaintzen duena zehatz-mehatz adieraziko dugu.

Guk eskaintzen ditugun produktuak desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen kirola egin ahal izateko ezinbesteko materiala da. Hala nola kirol-gurpildun aulkiak, zarata egiten duten baloiak, arkuak, bizikletak eta kirol egokitua egiteko beste material batzuk.



Hasteko, gure helburua, desgaitasun fisikoak dituzten pertsonen kirola egiteko aukera eta beraiek kirola egiteko erraztasuna bermatzea da. Horretarako, kirol egokitua egin nahi duten pertsonen material egokituak eskaintzen eta probatzeko aukera emango diegu.

Zerbitzu pertsonalizatu bat eskainiko diegu, bai elbarrituei bai esperientzia frogatu nahi duen edonorentzako. Donostian, Gipuzkoan, kokatuko dugu denda, zeren ez dugu mota honetako dendarik ikusi inguruan. Hortaz, bezeroek beharrezko materiala errazago lortzeko aukera izango dute.

Horrez gain, salduko dugun materialak, ez du generorik izango eta edozeinek erabili dezake, hortaz, guztiek izango dute aukera nahi duten kirola egiteko.

Gure asmoa ez da soilik produktuak saltzea, baizik eta bezeroekin harreman goxoa, hurbila, eta berotasuna adieraztea da, bezeroak ahalik eta esperientzia hoberena eduki ahal izateko. Hala ere, gustatuko litzaiguke marka ospetsu bat izatera iristea nahiz eta zaila denik. Euskal Herri mailan eskainiko dugu gure produktuak nahiz eta etorkizunean Espainia mailan zabaltzeko asmoa dugu.

Aldi berean, gure prezioak eskaintzen dugun produktuarekin erlazioa izango du, beraz nahiko garestia izango da, kalitatezkoa delako. Horrez gain, kontuan izan behar da online erosten duten bezeroentzako bidalketa doakoa izango da. Zeren ez dizkiogu gastu gehiago gehitu nahi.

Azkenik, gure enpresan edozein produktu erosi ondoren, bezeroak hamabost eguneko epea izango du erositako produktua frogatu ahal izateko, eta ez badu gustuko, itzuli dezake.